

Klima-aldaketa, Big Data eta indarkeria laborala Arriskuen eta Larrialdien Kudeaketari Buruzko XIII. Jardunaldietako gaien artean

- Edizio berriak egoitza berria izango du, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoa, eta maiatzak 28 eta 29 bitartean burutuko da. Hurrengo egunean, ariketa praktikoa gauzatuko da Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialaren laguntzarekin eta eremu ezberdinetako 150 profesionalen parte hartzearekin
- Klima-aldaketaren ondorioak eta horiei aurre egiteko emergentzia zerbitzuen beharrezko aurretiko antolaketa ere hizpide izango dira, baita larrialdien kudeaketari erantzun egokia emateko egin beharreko eraldaketa digitala, hainbat gairen artean. Hitzaldiak publikoari irekiak eta doakoak izango dira

Arriskuen eta Larrialdien Kudeaketari Buruzko XIII. Jardunaldiak gaur aurkeztu dira Donostiako Udalean. Maiatzaren 28 eta 29 bitartean burutuko diren jardunaldiek egoitza berria izango dute aurten, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan gauzatuko baitira. Era berean, aurreko urteetan bezala, ariketa praktikoa antolatu da maiatzaren 30ean, Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialaren laguntzarekin.

Aurtengo edizioan hainbat gai jorratuko dira: auto-babes planen antolakuntza, indarkeria laborala, eraldaketa digitalaren garrantzia larrialdien kudeaketan, klima-aldaketa, Big Dataren etika, eta lan munduko erantzukizun zibil eta penala.

Maiatzaren 28an eta 29an emango diren hitzaldietan profesional ospetsuek hartuko dute parte, eta arriskuen eta larrialdien kudeaketaren etorkizuneko erronkei buruz duten iritzia azalduko dute. Hitzaldien ondoren solasaldia egongo da, galderak eta informazio eta esperientzia trukea sustatzeko.


Gaur goizean Donostiako Udalean emandako prentsaurrekoan honako ordezkariak hartu dute parte: Donostiako Udaltzaingoan komisario buru José Anta, jardunaldien zuzendari tekniko Josu Garcia, Gizarte Ekintzako zinegotzi Aitziber San Román, Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkari Jaime Domínguez Macaya eta Donostiako Suhiltzaileen ofizialorde Javier Pujol.

150 partaideko ariketa praktikoa

Jardunaldiei amaiera emateko, Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialaren laguntzarekin antolatutako ariketa praktikoa burutuko da Urgentzia eta Larrialdietako Unibertsitate Aditu ikastaroaren prestakuntza jardueren barne. Ariketa honetan erizainek ikastaroan eskuratutako

**JORNADAS
DE GERENCIA
DE RIESGOS Y
EMERGENCIAS**

**ARRISKU ETA
LARRIALDIEN
KUDEAKETARI BURUZKO
JARDUNALDIAK**



ezagutza praktiko eta teorikoak erabiltzea espero da. Donostia erdiguneko enparantza batean gauzatuko da, maiatzaren 30ean, 10:30ak eta 13:00ak bitartean.

150 pertsona inguruk hartuko dute parte ariketa praktikoan: erizainak, Osasun Larrialdien Tekniko izateko ikasten ari diren Easo Institutuko lanbide-heziketako ikasleak, Donostiako suhiltzaileak, Osakidetza larrialdietako, DYako eta Gurutze Gorriko profesionalak, Donostiako Udaltzainak eta Ertzaintza.

IZEN EMATEA ETA INFORMAZIO GEHIAGO

Jardunaldietan doan izen eman nahi dutenek, <http://gerenciariesgosyemergencias.eu> web-orriko datu-orria bete beharko dute. Webgune horretan egitarauari eta hizlariari buruzko informazio gehiago aurkituko duzue.



Infotres

Komunikazioa - Comunicación
Tel: 943 22 45 30 - 609 121 666 (Aitor)
infotres@infotres.com / www.infotres.com